



# ABORDA DEZAGUN MEMORIA!

Kaleidoskpio Programaren barruan, Donostiako Untzi  
Museoko "Emakumeak eta Itsasoa" erakusketaren  
berrintepretazioa: portuko emakumeen gaia lantzeko  
material didaktikoa.



*Zuen lanak ez zuen  
preziorik.*



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA  
DSS2016.EU

## AURKEZPENA

Arte obrak ez dira adituek soilik ulertzen dituzten entitate abstraktuak, ez eta azalpen konplexu eta ulertezinen gordailuak ere. Aitzitik, arte obrak espresio bideak dira: gizakiak sentitzen, ikusten edo pentsatzen duena bere espezieko kideekin partekatzeko bitartekoak. Zenbaitetan artistak ideia transzendentalki kontatu nahi dituela iruditzen bazaigu ere, egiazki nahikoa lan izaten du eguneroko gertaera edo errealitate arruntenak esanguratsu bihurtzen. Normalean, gainera, hori egoten da bere maisutasuna: besteek begion aurrean edukiagatik ere ikusten ez duguna, **ikusgarri bihurtzeko gaitasunean**; gauzarik arruntena marko batean sartu eta errekonozimendua emateko ahalmenean. Zentzu horretan, lanik ederrenak gure egunerokotasunaz zer hausnartua ematen diguten adierazpenak izaten dira, maiz; gauzarik sinpleenak bere naturaltasunean adierazten dituztenak.

Artelanez errealitatearen lekuko fidela izateko ahalmena izan dezakete; kontatzen ez diren egien (edota kontatu ezin direnen) isilpeko gordailu izatekoa; **esaten ez dutena adierazten** baitute. Begiratzen dakienak, patxadaz eta arretaz kontenplatzeko sosegua hartzen duenak, esaten ez diren gauzak ikusten ditu bertan. Obraren eta hartzailearen artean komunikazio bideak irekitzen dira, eta hitzez adierazi gabeko kontuek ihesbideak harrapatzen dituzte.

Donostiako Untzi Museoko “Emakumeak eta Itsasoa” erakusketako argazkiek, isilean izanagatik ere, emakumeak historiaren parte izan direla gogorarazten digu. Ez dela egia gizonak itsasoan lan gogorrean ibiltzen ziren bitartean, eurak etxean goxoago, lasaiago eta arriskutik salbu egoten zirenik. **Emakumeen eta itsasoaren arteko harremana sakona eta modu anitzekoa izan da**, eta hori da hainbat artista erakusketa honetan baloratzen saiatu dena.

Irakurleak eskuen artean duen materialaren bitartez, aipatu erakusketa klasera sartzeko modua topatu nahi izan du egileak eta, aldi berean, gela barruan

pentzatzen dena kanpora ateratzeko bideak iradoki. Ikasleak historian zehar kontatu gabeko testigantzen konplize bihurtu nahi ditu eta hitzik gabeko lekukotasunak ere badirela ikusarazi. Hezkuntzaren eginkizunik garrantzitsuenetariko bat ingurua irakurtzen ikasteko tresnak ematea denez gero, gertuko errealitatearekiko kontzientzia piztea, **arte obrak ezagutzarako bide** direla sinesten du. Batetik, irudiak askotan ikusezina dena errekonozitzeko balio dutelako (kasu honetan emakumeek portuan edukitako presentzia); bestetik, artea inklusiboa ere badelako (denona den mundutik abiatzen direnez, denoi ikusarazi dakiguketelako zerbait).

Jarraian datozen orriak ikasle zein irakasleek erabiltzeko diseinatutako materiala dira. Gauzak horrela, irakurleak testuinguruan kokatzeko azalpen labur batzuk aurkituko ditu, baina baita bere kabuz ikasten eta informazioa bilatzen jarraitzeko proposamenak ere. Argazki eta irudiak dira bertako elementu nagusiak; funtsean, irudien eta biografien arteko arrakalak topatzeko proposamen baita honakoa, **portuko emakumeen historiak itsasoa bezain egiazkoak** zirela ikusarazteko saiakera gertuko bat izan nahi duena.

Izaro Toledo Retegi

Euskal Herriko Unibertsitateko MFPS/BBLH masterreko ikaslea

OIARTZUNEN, 2016ko uztailaren 15ean.

## ABORDA DEZAGUN MEMORIA!

### ERREPARATU AL ZENION INOIZ?

Gipuzkoar askok ongi jakingo duen bezala, **Donostiako Piratak** Donostiako Aste Nagusi ofizialaren kontrapuntu moduan 2003an sortutako herri mugimendua da. Euren ekimen ikusgarriena Donostiako kaitik koadrilek egunean bertan birziklaturiko materialekin eraikitako ontziak itsasoratu eta horien gainean Kontxako hondartzara jai giroan egiten den abordatzea antolatzea da.



Piraten buru **Ezkila Kapitaina** da. Pertsonai hau benetan existitu zen XVI. mendeko kortsario donostiar batean oinarritzen da: Pedro de Aguirre, "Campanario" ezizenez ezagunagoa. Bera da mugimendu osoak bultzatzen dituen balore finkoak pertsonifikatzen dituen figura: euskalduna, feminista, Donostiako eta Euskal Herriko jai herriko eta partehartzaileen bultzatzailea, eta

ama lurraren maitalea. Abordatzeko garaian berak adieraziko digu norabidea, itsasontzi pirata guztiek zuten kanpai hotsarekin.

Euskaraz "abordatu" hitzak bi esanahi izan ditzake: batetik, bi ontzik elkarrekin talka egitea; bestetik, ontzi batek beste bat harrapatzeko asmoz eraso

## ABORDA DEZAGUN MEMORIA!

egitea. Zenbaitetan badirudi historiak norabide bera jarraitzen duela guztiontzat, kapitain berak gidatzen gaituela eta kontrako noranzkoan datorren lekukotasunak ez duela sinesgarritasunik. Alabaina, ez du zentzurik horrela pentsatzen jarraitzeak: itsasoaren ederrena olatuen indarrak aprobetxatuaz lur berriak esploratzea da, sekula imajinatu gabeko paisaiak topatzea, edota munduan egoteko modu desberdinak badirela deskubritzea. Ez gaitez konformatu noranzko bakarreko memoriarekin, egin dezagun talka ikasi eta ikusitakoarekin ur handiko itsasoetan. Abant, pirata, **AUSART ZAITEZ ZURE MEMORIA ABORDATZERA!** Ausartu gure herri-memoria abordatzera!

### ATERA LARGABISTA ETA BEGIRATU!

#### EZAGUTU DITZAGUN GEHIAGO DONOSTIAKO PIRATAK

- Jaietan bakarrik ibiltzen al dira Piratak? Zein lan gehiago egiten dute? Bisita ezazu euren web orria:
  - o <http://www.donostiakopiratak.eus/>
- Nor izan zen hainbestetan aipatzen duten **Pedro de Aguirre, "Campanario"** delako hori?

#### ZER DAKIGU EMAKUME HAUEI BURUZ?

- AMERIKETARA BIDAIAN JOANDAKOAK: Isabel Barrero (armada espainiarreko emakume almirante bakarra), Mencía Calderón, Catalina de Erauso (Ameriketako soldadu legez borrokatzera joateko gizonez mozorrotu zena) eta Ana María Soto (1797an Cabo San Vicenteko itsas gudan parte hartu zuena)
- TRIPULAZIOAREN BURUZAGI JARRI IZAN DIRENAK: Mary Patten, Joan Druett, Jennie Parker.
- ITSAS NEGOZIOEN MUNDUAN IBILIAK: Tomasa de Azcárate, Mariana de Rovere eta Gracia de Atocha

## ZUEN LANAK EZ ZUEN PREZIORIK

### ERREPARATU AL ZENION INOIZ?

Batek daki noiztik den arrantza elikagaiak lortzeko jarduera. Gizakiak aspalditik praktikatu du ekintza hori, baina emakumearen kasuan, ez da beti gizonezkoen gisara ordaindua eta errekonozitua izan. Arrantza munduan emakumeak sareen mantenez aparte, deskarga, garraio eta arrain salmenta lanetan ere ibili izan dira. Hori gutxi ez, eta beren kargu gelditzen zen **familiaren eta etxearen zaintza** ere. Beren kargu gelditzen zen etxeko diruaren administrazioa. Ez da kasualitatea, hortaz, “ekonomia” hitzak “etxearen administrazioa” esan nahi duen oikonomia hitzetik eratorri izatea.

Historiara gerturatu nahi duen orok, ezin dio biztanleriaren erdia baino gehiagoa osatzen duen emakumeen eremuari ezikusiarrena egin. Askotan ikusgarria denarekin gelditzen gara, areago, guk bihurtzen ditugu direna baino ikusgarriago, baina, **bestetan ez dugu begien aurrean dugun guztia ikusteko gaitasunik**. Tamalez, emakumeek egindako ekarpen publikoa asko, bertakoen ongizaterako ezinbestekoak izan direnak, itzalpean gelditu dira maiz, hala nola: haurren hazkuntza eta hezkuntza, familiaren osasuna, jantziak, elikadura, edota etxeko ondasunen kudeaketak.

**Kostako familien kasurik imajinatu al duzu inoiz?** Zalantzarik ez dago itsasora bidaia luzeak egiteak lan erabat gogorra zela, beldurgarria inoiz itzuliko ez zaren ziurtatu gabe etxetik milaka kilometrotara arrain bila joan beharra. Baina zer gertatzen zen lurrian gelditzen zirenekin? Nork kontsolatzen zituen aitaren zain gelditzen ziren seme-albak? Nork elikatzen zituen? Nola egin aurre bakardadeari? Itsasoaren kontra borrokan egon zitekeen marinelaren emazteari?



Marina auzoa (Portua), Hondarribia, posta-txartela, T. Berrotaran.  
Untzi Museoa, Donostia.

### ATERA LARGABISTA ETAB BEGIRATU!

**NAUFRAGIOAK ETA ENBATAK.** Marinelen amesgaiztoak ziren naufragio eta enbatak, marinelen familienak ere baziren. Zein izan dira esanguratsuak? Ba al duzu baten baten berri?

- Zein enbata egon zen 1912. urtean? Zer gertatu zen?
- Zer gertatu zen 1950. urtean Mutrikuko Kulixka arrantza-ontziarekin?
- Zein itsasontzi urperatu zen Orion 1952. urtean? Zer gertatu zen?
- Zenbat denbora egon zitezkeen marinela itsasoan? Nola jakin arrantza-ontziak ondoratuta zeuden edo bidai luze doan?

Ezagutzen al duzu **Sorotan Beleren** “**Marinelaren zain**” abestia?

- <https://www.youtube.com/watch?v=YWwUfshKtgc>

**Uxue Alberdik** badu kostako emakumeen bizipenak kontatzen dituen eleberri bat. **Aulki-jokoa** izeneko. Irakurterraza da eta lagungarri suerta dakizuke portuko emakumeen bizitzak nolakoak ziren irudikatzeko.

Hiru emakumeren ahotsek josten dute eleberri honen sarea: Teresa, Martiña eta Eulali haurrak ezagutuko ditugu, adokinetan korrika, baita haiek berak gaztetan ere, beren ilusio eta hausturekin, eta pasarte horiekin tartekaturik pertsonaia berberak gaur egun, arratsaldero kafea hartzen, gozotegian, nor bere aulkian.

- Alberdi, Uxue (2009). *Aulki-jokoa*, Elkar, Donostia.



**San Telmo Museoa** badu **Emakumeen Kalejira** izeneko ibilbide historiko bat. Ibilbidea Donostiako Alde Zaharrera eta lehen zabalgunera mugatzen da, hiriaren muina, udalerrri osoa ulertarazteko bide ematen digun nukleoa delako; eta oinez ibilita –emakume donostiarrek utzitako ondare sotila hobekien preziatzeko era–, kalitateko bisitaldia egingo bada gehienez ere ordu eta erdiko ibilaldia egin daitekeelako. Horrez gain, beren web orrian idatzizko euskarriak dauzka irakasle zein ikasleentzat Donostiako emakumeen historiari buruz gehiago jakiteko.

- [http://www.santelmomuseoa.com/index.php?option=com\\_flexicontent&view=items&id=8196&cid=4&Itemid=119&lang=eu](http://www.santelmomuseoa.com/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=8196&cid=4&Itemid=119&lang=eu)

## ZAINDU ETA KONTSERBATU EZEAN, ALFERRIK

### ERREPARATU AL ZENION INOIZ?



ETB1eko Eskamak kentzen telesaila, 2015.  
ETBnahieranetik ateratako argazkia

**Eskamak kentzen** ETB 1eko telesail bat da, euskaraz ekoitzia eta lanbide zaharra utzi nahi ez duten eskabetxera talde baten eguneroko bizitza du ardatz. 2016ko otsailaren 23an hasi zen emititzen ETB1en, eta Euskal Herriko hainbat aktore ospetsuk hartzen dute parte bertan.

'I Tre Velieri' kontserba-lantegiak hondoa jo duela eta, nagusiak lantegia ixtea erabakitzen du. Langileek, baina, pauso bat aurrera egitea erabakitzen dute: lantegia erosi eta kooperatiba sortu dute. Denak dituzte erabakiaren aurka, eta zorpetu egin dira, nahiz eta egoera ekonomiko eskasean egon. Abiapuntu horretatik hasita, telesailak **eskabetxearen eguneroko bizipen eta gora-beherak kontatzen ditu**.

Telesaila gaur egunekoa izanagatik ere, eskabetxe lantegi eta gazitze enpresetako lana **emakumeek antzinatek egiten duten zeregina** da eta jarduera horrek arrantzale familien hainbat urtarotako ekonomiaren prekarietatea samurtzen zuen.

Eta zuk, ikusi al duzu inoiz telesaila? **Jan al duzu inoiz ezer eskabetxean prozesatua?** Ezagutzen al duzu gisa horretako lantegiren batean lan egiten duen (edo egin duenik) norbait?

### ATERA LARGABISTA ETA BEGIRATU!

Zenbat eskabetxera ezagutzen dituzu? Zenbat egon dira **Euskal Herriko kostan?** Aukeratu dagoenerako itxita dagoen bat eta topatu informazioa:

- **Zein perfileko jendeak** egiten zuen lan bertan? Nolakoak ziren langileak, nolakoak jabeak?
- **Zein baldintzatan** egiten zuten lan? Astean zenbat ordu, zein lansarirekin? Soldata berdina al zen emakumezko eta gizonezkoentzako?



Bermeoko gazitze-enpresa baten langileak.  
Arrantzaleen Museoa, Bermeo

**Nondik datoz gaur egun jaten ditugun kontserban datozen arrainak?** Nongo arraina da? Non prozesatuak?

## ZURE TXANDA DA, PIRATA!

Jarraian Donostiako Untzi Museoan ikusgai **dauden arrain kontserbako laten diseinu** batzuk aurkezten dizkizugu. Bertan gorputz liraineko emakumeen marrazkiak ageri dira. Denak itsaso inguruko zereginak egiten ageri dira; baina, egiazki, itsasoko langileak baino gehiago pasarelatan lan egiten dutenak neska dotoreak dirudite.

**Bila itzazu argazki zaharrak.** Garai bateko eskabetxe fabrikatako langileen irudiak eta **konpara itzazu irudi hauekin:**


- Marrazkietako emakumeen ereduak **bat al datoz errealitatearekin?**
- Zein **antzekotasun** daude, zein **desberdintasun?**
- **Nork** eginak dira marrazkiak? Eta argazkiak? **Norentzat?**



Barrenechea y Goiri enpresetako arrain kontserbako laten diseinuak. Donostiako Untzi Museoako beirate bateko irudiari ateratako argazkia.



Barrenechea y Goiri enpresetako arrain kontserbako laten diseinuak. Donostiako Untzi Museoako beirate bateko irudiari ateratako argazkia.



Barrenechea y Goiri enpresetako arrain kontserbako laten diseinuak. Donostiako Untzi Museoko beirate bateko irudiari ateratako argazkia.



Barrenechea y Goiri enpresetako arrain kontserbako laten diseinuak. Donostiako Untzi Museoko beirate bateko irudiari ateratako argazkia



Barrenechea y Goiri enpresetako arrain kontserbako laten diseinuak. Donostiako Untzi Museoko beirate bateko irudiari ateratako argazkia.

## ITSASOAN ADINA LAN BADA LEHORREAN!

### ERREPARATU AL ZENION INOIZ?

Arrantzaren inguruko lanak sexuen arabera banatu izan dira. Gizonak itsasora joan ohi ziren eta arrainaren prozesamendua emakumeen esku geratzen zen; deskarga, kontserba, arraina lehortzea edo gazitzea, biltegiatzea eta saltzeak, kasu. **Emakumezkoen lana ezinbestekoa izan da etxeetan, portuan eta arrantzan.** Etxe eta familietako zaintza lanak behar bezala egin ahal izateko, etxeen ekonomiaren beharrei erantzuna emateko, alegia, hainbat lan osagarri egin behar izaten zituzten portuan: marisko lana, arrantzako tresnen mantenua, arraiaren deskarga, kontserba fabriketako eskulanak eta salmenta eta enkantea, besteak beste.

“**Itsasoko andre**” edo “**pixonera**” lana nabarmena izan zen gure portuetan. Izena ezberdina izan zitekeen herriaren arabera, baina, funtsean lana berdina zen: sareak konpontzea, arraina garraitzea, merkantzia salmentarako prestatzea eta enkantea egitea. Arrain freskoaren lehorreko salmenta egiteko, oinez joan behar izaten zuten 20-30km-ko ibilbideak ere eginez.

Ezagunak dira Pasaiako emakume **batelariak**, mareen egoera kontuan izanik, karga mota guztiak txalupa eta gabarroietan garraiatzen zituztenak. Ezagunak dira, baita ere, Donostia eta Bilboko **kargaketariak**, oso txikitatik moilatan ibiltzen ohitutako emakumeak, portuko langileekin ezkonduak maiz eta atsedenik gabe lan egiten zutenak (kargagetariek beren eginkizuna gizonena baino lansari baxuagoarekin betetzen zuten). Baina ez dira hain ezagunak **zirgariak** egindako lanak: gerrian larruzko uhal bati lotuta soken bidez lehorretik tiratzen zituzten ontziak. Bilboko portuan XX. mendera arte iraun zuten azken horiek, nahiz eta, aurreko mendetik, gizarte-salaketarako gai izan.

Ezin aipatu gabe utzi **bainulaguntzaileen** ogibidea. Berau Donostiako kaiko bizilagunek egiten zuten aldi-baterako lana zen eta XIX. mendeko bigarren erdian garatu zen kostako turismoak, bainuetxe ingelesetan modan jarri zen itsas bainuen ondorioz sortu zen. Donostiako hondartzara (beranduago Zarautz, Deba, Lekeito eta Getxoko hondartzetara ere bai) gero eta jende gehiago etortzen hasi zen kanpotik, eta bainuzaleek ziurtasunez itsasoratzeko emakume eta gizonetzkoen laguntza eskatzen zuten. Imajinatzen al duzu zure burua gaur egungo turistekin bainatzen?

### **ATERA LARGABISTA ETA BEGIRATU!**

#### **SALTXEATU DEZAGUN:**

- **Pixonera** esateko zenbat adiera ditu euskarak? Ezagutzen al duzu beraiek (normalean oinutsik) egiten zuten ibilbiderik?
- Zein **soldata desberdintasun** zegoen emakume kargaketari baten eta gizon kargaketari baten artean? Berdina gertatzen ote zen kontserba fabriketan? Gaur egun hori legezkoa al da?
- Esan dugu **gizarte salaketarako gai** izan zirela zirgariak Bilbon. Zenbateko lan indarra egiten ote zuten? Zenbateko pisua mugituko ote zuten? marisko lana.
- **Zein hizkuntzatan** hitz egiten ote zuten bainulaguntzaileek kanpotarrekin? Bainuzale guztiak ote ziren kanpotarrak? Nolakoak imajinatzen dituzu?

#### **BISITA DAITEZKEEN MUSEOAK**

- Donostiako Untzi Museoa
- San Telmo Museoa
- Pasaiako Albaola Itsas Museoa
- Bermeoko Arrantza Museoa

### ZURE TXANDA DA, PIRATA!

**Aukeratu arestian aipatu ditugun ofiziotakoren bat** (pixonera, batelari, kargaketari, zirgari edo bainulaguntzaile) edota emakumeak itsas munduarekin historian zehar eduki izan dezakeen besteren bat **eta sortu pertsonaia bat**. Imajina ezazu nolakoa izango zen beraien egunerokotasuna, zein izango ziren barruan zituzten kezkak, ilusioak edota beldurrak eta saia zaitez eguneroko bat idazten. Jarrian agertzen diren argazkiez balia zaitezke zure pertsonaia sortzeko.

**Eguneroko baten orri batzuk idaztea** proposatzen dizugu, zuk erabaki noren hitzetik eta norentzat, zuk erabaki zer kontatu nahi duzun, zer kontatu nahiko duen pertsonaiak eta nola. Behin testua idatzita daukazunean, ederra litzateke ahozgoran irakurri eta audio bat grabatuko bazenu. Klasekide guztiek gauza bera egingo bazenute, herrixka bateko emakumeen egunerokoa osatzera hel zintezkete.

**Zuena da lema, orain, eutsi gogor eta ez beldurrik izan memoriak abordatzeari!** Zorte on!





Emakumeak zirga lanetan Les Sables d'Olonnen (Frantzia).  
Untzi Museoa, Donostia.



Antxoak gatzunetan jartzen. Donostia, 1950  
inguruan.  
Untzi Museoa, Donostia.



Ikatza deskargatzen Bilbon. Hauser eta Meneten  
fototipia, 1891.  
Untzi Museoa, Donostia.



Bermeoko gazitze-enpresa bateko langileak.  
Arrantzaleen Museoa, Bermeo.



Arrain gazitua jartzen eta paketatzen Getarian. Posta txartela.  
Untzi Museoa, Donostia.



Bretxako arraindegia. Pascual Marinen argazkia.  
Kutxa Fototeka



Bainuzaleak loretopean, 1917.  
Kutxa Fototeka

## ESKERRAK

Amaitzeko, lehenik eta behin, eskerrak eman nahi nizkioke **DSS2016**ri **Kaleidoskopio programaren** barruan berrinterpretazio hau egiteko eman didan aukeragatik.



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA  
DSS2016.EU

Eskertu nahi nuke, baita ere, Donostiako **Untzi Museoa** erakusketa bisitatzeko eman dizkidan erraztasunengatik eta eskuragarri jarritako informazio eta irudiengatik. Baina baita museoko hezkuntza arduraduna den Soko Romerori ere, materiala diseinatzeko emandako aholkuengatik.



Ildo horretatik, Donostiako **Kutxa Fototeka San Telmo Museoa**, eta Bermeoko **Arrantzaleen Museoari** egin behar diet erreferentzia. Batetik, Emakumeak eta Itsasoa erakusketan guztion eskuragarri jarri dituzten argazkiengatik, eta, bestetik, bertako argazki batzuk material honetarako baliagarriak izan direlako.



Ez nuke amaitu nahi **Donostiako Piratei** aipamenik egin gabe, oso baliagarria izan baizait euren web orrian daukaten informazioa. Areago, asko poztu nau beraien jardunean itsasoko emakumeen irudia biziki presente dutela ikusteak.

